

2010/2011ko LEKUALDATZE-LEHIAKETA
MAISU-MAISTRAK, BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO,
KONTSERBATORIOKO, LANBIDE HEZIKETAKO ETA ARTE PLASTIKOAK ETA DISEINUKO IRAKASLEAK
ETA IKUSKARIAK.

OHARRAK

1.KONTUTAN HARTU BEHARREKO BERRIKUNTZAK

- 1.- PARTE HARTZEKO ESKAERA (2010eko azaroaren 25etik 2010eko abenduaren 14ra bitartean, biak barne)
- 2.- MEREZIMENDUAK
- 3.- ALDEZ AURREKO HITZORDUA

[Informazio gehio izateko izateko hemen sakatu](#)

2. APLIKAZIO INFORMATIKOAREN GIDA

[Informazio gehio izateko izateko hemen sakatu](#)

DEIALDEAREN LABURPENA

AGINDUA, 2010eko azaroaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Agindu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden maisu-maistren kidegoko irakasle-funtzionarioak lekuz aldatzeko lehiaketarako deia egiten da.

Parte hartzeko moduak

Borondatezko parte hartzea

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko funtzionarioak baldin eta behin betiko azken destinoaz jabetu zirenetik aurtengo ikasturtearen amaiera arte gutxienez urte bi pasatu badira.

1. behin betiko destinoarekin jarduneko zerbitzuan ari diren funtzionarioek
2. atxikitako ikastetxeetan aitortutako zerbitzu berezietako egoeran dauden funtzionarioek
3. Egun aitortutako borondatezko eszedentzia egoeran
4. atxikitako ikastetxeetan aitortutako etendura egoeran aurkitzen diren funtzionarioek
5. Beste Herri Administrazio batzuetan zerbitzua eskaintzen ari diren funtzionarioek

Atal honetan aipatzen diren parte-hartzaileek gainontzeko hezkuntza administrazioek egindako deialdiei dagozkien lanpostuak ere sartu ahal izango dituzte beren eskabidean, dagozkien oinarri-arauetan ezarritakoa beteta.

Derrigorrezko parte hartzea

Hurrengoek derrigorrez parte hartu behar dute lekualdatze lehiaketan:

1. Behin-behineko destinoa dutenak
2. Praktikaldian dauden funtzionarioak
3. Ebazpen bat dela medio, haien behin-betiko destinoa galdu duten funtzionarioak

Eskatu ahal diren lanpostuak

Maisu-maistren kidegoko funtzionarioentzako lanpostuak eta parte-hartze baldintzak

1. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Ingelesa, Frantsesa, Euskara, Gorputz Hezkuntza, Musika, Pedagogia terapeutikoa, Entzumena eta Hizkuntzako lanpostuak eskatu ahal izango dituzte dagozkien espezialitateko titulartasuna egiaztatzen duten maisu-maistrek, bai eta, horietarako gaitu direnak ere
2. Aholkulari-lanpostuak eskatu ahal izango dituzte jarraian adierazten diren baldintzetakoren bat betetzen duten maisu-maistrek
3. Helduen Hezkuntza, hasierako ikasketak; Helduen Hezkuntza, ingelesa; Helduen Hezkuntza, frantsesa. Horretarako, Lehen Hezkuntza, Ingelesa edo Frantsesa espezialitateko titulartasuna egiaztatu beharko da edo, bestela, aipatu lanpostuetan aritzeko gaituak izan behar dute.
4. Helduen Hezkuntza, Pedagogia terapeutiko eta Hezkuntza Ertaineko ikastetxe publikoetan zereginen ikaskuntzarako geletan Pedagogia terapeutikoko lanpostuak eska ditzakete Pedagogia terapeutikoa espezialitatearen titulartasuna egiaztatzen duten maisu-maistrek, bai eta aipatu espezialitateko egokitzapena dutenek ere.
5. Maisu-maistren kasuan, DBHko 1. eta 2. kurtsoko lanpostuak, bi kurtso horietan behin-betiko destinoa dutenek soilik eskatu ahal izango dituzte
6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetakoko Pedagogia Terapeutikoa eta Entzumena eta Hizkuntza lanpostuak eskatu ahal izango dituzte dagozkien espezialitateko titulartasuna egiaztatzen dutenek bai eta aipatu espezialitateko egokitzapena dutenek ere.

Bigarren Hezkuntzako katedradun eta irakasleen kidegoko funtzionarioei honako lanpostu hauek eskaintzen zaizkie

1. Titular diren espezialitateei dagozkien lanpostuak, agindu honen I. eranskinean azaltzen diren ikastetxeetarako eta VI. eranskinean aipatutako espezialitateetarako.
2. Hizkuntza eta Gizartearen arloko Curriculum Desberdinak Eratzeko irakasle-lanpostuak.
3. Zientzia eta Teknologiaren arloko Curriculum Desberdinak Eratzeko irakasle-lanpostuak.
4. Helduen Hezkuntzako lanpostuak
5. Kultura Klasikoko lanpostuak.
6. Hizkuntza indartzeko lanpostuak

Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoko funtzionarioei honako lanpostu hauek eskaintzen zaizkie:

1. Titular diren espezialitateei dagozkien lanpostuak, agindu honen II. eranskinean azaltzen diren ikastetxeetarako eta VII. eranskinean aipatutako espezialitateetarako.
2. Zereginen Ikaskuntzarako Geleai dagozkien lanpostuak.

Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoko eta Arte Plastiko eta Diseinuko katedradun eta irakasleen kidegoetako funtzionarioentzako lanpostuak eta parte-hartze baldintzak.

- 1.– Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradun eta irakasleen kidegoko funtzionarioei, titular diren espezialitateak kontuan hartuta, agindu honetako III. eta VIII. eranskinetan agertzen diren ikastetxe eta espezialitateetako lanpostuak eskaintzen zaizkie.
- 2.– Musika eta Arte Eszenikoko katedradun eta irakasleen kidegoko funtzionarioei, titular diren espezialitateak kontuan hartuta, agindu honetako IV. eta IX. eranskinetan agertzen diren ikastetxe eta espezialitateetako lanpostuak eskaintzen zaizkie.
- 3.– Arte plastikoetako eta diseinuko katedradun eta irakasleen kidegoko funtzionarioei, titular diren espezialitateak kontuan hartuta, agindu honetako V. eta X. eranskinetan agertzen diren ikastetxe eta espezialitateetako lanpostuak eskaintzen zaizkie

Ez dira inolaz ere nahitaez esleituko honako hauek:

- Helduen Hezkuntzako lanpostuak.
- Zereginen Ikaskuntzarako Gelei dagozkien lanpostuak.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailletako lanpostuak.
- Plaza ibiltariak

Eskubide preferenteak, edo Lehentasunezko eskubidea

Ikastetxerako eskubide preferentea

Behin betiko destinoa izan duten ikastetxe berean behin betiko destinoa lortzeko lehentasunezko eskubidea izango dute, adierazitako kasuren batean dauden eta ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileek, zerrendatzen diren lehentasun-ordenan, beti ere lanpostua betetzeko ezinbesteko diren baldintzak betetzen badituzte

1. Ikastetxe batean behin betikoz betetzen zuten plaza edo lanpostua ezabatzen denean
2. Ikastetxe batean behin betikoz betetzen zuten plaza edo lanpostua aldatzen denean
3. Behar adina irakastordu ez izateagatik beren ikastetxetik lekualdatu dituztenen kasuan
4. Espezialitate berriak eskuratzen dituztenean

Udalerri edo zonalderako eskubide preferentea

Herri edo eskualde bateko ikastetxeetan behin betiko destinoa lortzeko lehentasun-eskubidea izango dute, jarraian adierazten diren egoeraren batean dauden eta ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek, zerrendatzen diren lehentasun ordenan beti ere lanpostua betetzeko ezinbesteko diren baldintzak betetzen badituzte

1. Ikastetxe batean behin betikoz betetzen zuten plaza edo lanpostua ezabatu edo aldatzen denean
2. Behar adina irakastordu ez izateagatik beren ikastetxetik lekualdatu dituztenen kasuan,
3. Behin betikoz betetzen zuten irakasle-lanpostua galduta Herri Administrazioan beste lanpostu bat betetzera pasa direnak, beti ere azken lanpostua eten badute.
4. Behin betikoz betetzen zuten plaza edo lanpostua galdu dutenak
5. Atzerriko lanpostuetara atxikita egon ondoren, 2011/2012 ikasturtean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren kudeaketa eremura itzuli behar diren funtzionarioak edo, aurreko ikasturteetan itzulita-koak izanik, oraindik behin betiko destinorik lortu ez dutenak
6. Sententzia betearazpenean edo administrazio-errekurtsorearen ebazpenean
7. Ezintasun iraunkorraren ondorioz erretiro-egoera aitortu ostean, zerbitzu aktiborako errehabilitatuak izan direnak.

Konkurrentziarako eskubidea

Konkurrentzia-eskubide gisa hartzen da, behin betiko destinoa duten irakaskuntza-kidego bereko karrerako hainbat funtzionarioek lehiaketa batean parte hartzeko baldintza gisa Lurralde Historiko jakin bateko ikastetxe batean edo batzuetan destinoa lortzea jartzen dutenean

Eskaerak aurkezteko modua (2010eko azaroaren 25etik 2010eko abenduaren 14ra bitartean, biak barne):

Bakarrik ON-LINE egingo da (Ikuskariak izan ezik) eta, horretarako, irakaslegunea ingurunean dagoen eskaera elektronikoa beteko da.

Lanpostuak

Behin-behineko lanpostu hutsetarako 2011ko otsailaren 25a baino lehen eta behin betiko lanpostu hutsetarako 2011ko maiatzaren 13a baino lehen argitaratuko dira.

Lekualdatze-lehiaketa honetan sartzen diren lanpostuak hauek dira: bat, deialdia argitaratzerakoan hutsik dauden lanpostuak; bi, 2010eko abenduaren 31 baino lehen hutsik geratu diren lanpostuak; eta hiru, lehiaketa ebazterakoan sortzen direnak. Horiez gain, derrigorrezko erretiroak direla-eta, 2010-2011 ikasturtea amaitu artean hutsik geratzen diren lanpostuak ere gehitu ahal izango dira.

Destinoen esleipenak

Behin-behineko esleipena eta gero bost egun egongo dira erreklamazioak egiteko eta lekualdatzean borondatez parte hartu duten funtzionarioek esleipenari uko egiteko. Ondoren behin betiko esleipena izango da

Merituak

Parte hartzeko eskabidea aurkezteko unean, lehiatzaileek eskatutako baldintzak eta adierazitako merituen ziurtatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, agindu honen adierazten den baremoan zehazten diren aurreikuspenei jarraituz.

INFORMAZIO OSOA HURRENGO ESTEKAN DAGO:

[AGINDUA, 2010eko azaroaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Agindu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden maisu-maistren kidegoko irakasle-funtzionarioak lekuz aldatzeko lehiaketarako deia](#)

[Lekualdatze Lehiaketa](#)